

Fuencaliente-ko itsas hondokoak.

La Palma uhartearen hegoaldean, sartalde eta sortaldera begira, aurkitzen da Fuencaliente herrigunea.

Erupzio bolkanikoek ardo ezin hobea ontzen duen lurra eta sarri algaz estalirik dauden ur gardeneko itsas hondokoak eman dizkiote Fuencalienteri.

Ekoizle primarioz beteriko inguru batean, piramide trofikoan maila gorenetan aurkitzen diren organismoak ugaltzen dira.

Batzuk alga eta arroka artean ari dira paseoan.

Beste batzuk berriz, kripsiaren maisu, itsas hondotan dabilta joan etorrian.

Tronpeta arraina bakarrik ibili ohi da noraezean, harrapakin bila. Hemen, *seiffa* deitzen duten muxarrarekin banatzen du arroka arteko espazioa. Baina Fuencalienteko arroka guztiak ez dira harri soilak. Batzuek istorioak kontatzen dituzte.

1570eko ekainaren 5ean, Funchal-etik *Santiago* galeoia irten zen Brasilera bidean, Jesusen Konpainiako berrogei erlijio gizon zeramatzala.

Zortzi egun beranduago, ontziak Tazacorten egin zuen geldialdia. Hurrengo goizean Santa Cruz de la Palmarantz zihoazen, Jaques de Sores pirataren bost ontzik eraso egin ziotenean. Labanaz erailak, jesuitek itsas hondotan amaitu zuten. Erlikiak Tazacorteko ermitan daudela diote, baina itsas ondoan, Malpicako lurmuturra eta Fuencaliente artean, harrizko berrogei gurutze dira beraien bukaeraren lekuko.

Boca Fornallatik gertu, arrantzaleek cueva de las Palomas deitua, argi eta itzal artean, arrainak zaindari dituztelarik.

Tronpeta arraina, katuarra eta itsas kabrak noraezean dabilta alga artean, hondoratutako mito eta sinboloei kasurik egin gabe.

Hemen, itsas hondotan, betiereko indarrek ez dute askorik balio. Salbameneko bideak argi daude, indartsuagoa izan edo ihes egin, oharkabean gertatu edo beldurra eman, edo arriskutsu itxurak egin, babeslekua aurkitu eta kumeak babestu.

Eta sare eta kanaberetatik ihes egin.

Gizakiaren aztarna bakarrak gurutzeak diren bitartean, arrainak salbu egongo dira, eta tronpeta arrainak, Fuencalienteko hondotan, joan-etorrian jarraitu ahalko du. Itsas hondoko sare trofiko konplexuan sustengatua, bizitza lehenengo eta hiltzea gero patu bakarra, hilarri eta zeremoniarik gabe.